

ERRENTA ALDAKORRA 2024/APIRILA/30

# BASKEPENSIONES BURTSA GAPI

**k**  
kutxabank  
gestión

## INBERTSIO POLITIKA

Arriskua bere gain hartzen duten eta Espainiako Burttsako baloreetan inbertitu nahi duten pertsonentzat, %75 eta %100 bitartean.

Planak, bere inbertsioekin, ingurumen alderdiak edo/ta alderdi sozialak sustatzen ditu (2019/2088 (EB) Erregelamenduaren 8. artikulua) eta kontrako gorabehera nagusiak (inbertitzen dituen enpresek ingurumenean edo/ta gizartean eragindako inpaktu negatiboak) arriskuen azterketan eta inbertsio-erabakietan txertatzen ditu.

## 2024/04/30era Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
-%0,05	%8,56	%8,79	%19,78	%8,88	%3,84	%2,42

\*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekoak.

2024	2023	2022	2021	2020	2019	2018
%8,79	%23,76	-%5,45	%9,02	-%11,88	%9,45	-%13,20

\*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

## 2024/04/30era Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%11,15
Lurrunkortasun 3 urte**	%15,09

\*\*Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzinasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

## HILEKO IRUZKINA

Apirilean, tentsio geopolitikoek eta tasen igurikimenean berregokitzeak markatu zuten merkatuen norabidea, beste faktore batzuekin batera, hala nola Japoniako dibisak izandako ahultasuna edo enpresen emaitzak. Azken asteetan zehar, inbertitzaileen komunitatean zalantzak sortzeko arrazoirik ez zen falta, Ekialde Hurbileko tentsioak gora egin baitu, gatazka zabaltzeko mehatxua egiten zuten eraso berrien ondoren. Hala ere, apirilaren amaieran bazirudien ezegonkortasuna, partzialki behintzat, moteldu egiten ari zela, eta, aldi berean, presio diplomatikoak aurrera jarraitzen duela, Gazako su-etena lortzeko negoziazioa bideratzeko. Baina zalantzarik gabe, berriro ere, Amerikako "desinflazio" prozesuari buruzko zalantzak izan ziren protagonista. AEBk erritmo onean hazten jarraitzen


du, nahiz eta urteko lehen hiruhilekoko hedapena %1,6ra mugatu, 2023ko laugarren hiruhilekoan erregistratutako %3,4arekin alderatuz, baina kontsumo horrek ekarpen handia egiten jarraitzen du, indartsu jarraitzen duen lan-merkatuaren eskutik. AEBko jarduera orokorraren erritmo on horrekin batera, inflazioak gora egin zuen. Horrek, 90 dolarreko muga gaintitzen zuten petrolioaren presioarekin batera, interes-tasen jaitzieran atzerapen bat egongo zela pentsatzera eramanean zuten merkatua. Azken bileran, FEDek balizko murrizketa baterako joera azaldu zuen, baina alarma piztu zuen inflazioari buruzko azken datuetan, tasen murrizketa horiek berandu iristea eragin zezaketenak. Bestalde, European, Christine Lagardek emandako mezuek (interes-tasak %4,5ean mantentzen zituen, aldaketarik

gabe) berresten zuten ekainean tasak jaitsi daitezkeela, eta ehuneko puntu oso batera iritsi daitezkeela urtearen amaieran, betiere datuek eta ekonomia bilakaerak horretarako aukera ematen badute. Hileko beste faktore garrantzitsu bat Yenaren balio-galera handia izan zen, azken hiru hamarkadetan ikusi ez zen mailara iritsi arte, nahiz eta azkenean baieztatu gabeko esku-hartze publiko baten ondorioz apur bat moteldu. Horrek Txinak devaluazio bati aurre egiteko beldurra piztu zuen, dibisa-gerra potentzial bati bide emanez. Azkenik, enpresa mailan, lehen hiruhilekoko emaitzen argitalpenak aurreikuspenak gaintitu zituen. Egoera horren aurrean, finantza-merkatuek atsedean hartzea lortu zuten, Amerikako burtsa-indize gehienetan %5 inguruko beherakadekin, European

apur bat moderatuagoak ziren bitartean. Horrela, Eurostoxx50ek %3,19 galdu zuen 4.921 punturaino. Bitartean, Nikkeik %4,86 galdu du, eta Txinako burtsak positiboki itxi du, baita merkatu emergenteek ere. Errenta finkoan, interes-tasak igo egin ziren, Amerikako bi urterako bonuak %5 gaintitu zuten, martxoan baino oinarritzko 42 puntu gehiago; 10 urtekoa, berriz, 48 igo zen, %4,68raino. Eurogunean, berriz, bund-a %2,58ra igo zen, eta Espainiakoak 19 puntu igo zituen, %3,35eraino. Errenta finko pribatuko merkatuetan ere hegazkortasuna izan zen nagusi, bere diferentziala handituz. Azkenik, euroak balioa galdu zuen dolarraren eta liberaren aldean, petrolioaren prezioa %1,03 igo zen eta urrea bere maximo historikoetara hurbildu zen.

## EZAUGARRI OROKORRAK

Ondarea:	33.073.010,91
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenbolsio Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Oso Altua
Inbertsiorako gutxieneko epea:	-




## Errenta aldamoreen posizio nagusiak

ACTIBO	PISU
AC. IBERDROLA SA	%10,51
AC. BANCO SANTANDER SA	%10,27
AC. INDITEX	%10,20
AC. B.B.V. - ARGENTARIA	%7,96
AC. AMADEUS IT HOLDING SA-A	%4,95

Errenta aldamoreko posizio nagusiak: zuzeneko esposizioa eta zeharkakoa barne. Errenta aldamoreko zorroaren banaketa sektoriala: zuzeneko esposizioa eta zeharkakoa barne.

## Errenta aldamoreko zorroaren banaketa sektoriala



# BASKEPENSIONES BURTSA GAPI

## BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkoa askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitezke.



## PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

Hasi etorkizuna planifikatzen,  
Baskepensioneseekin:

**SIMULAGAILUA**

